

EUSKARAZ BLAI - EUSKARAZKO UDALEKUAK 2019

OHARRAK – ZALANTZAK – AHOLKUAK

Hemen udalekuei buruz hainbat informazio orokor, zalantza eta aholku aurkituko dituzue, baita 2019ko edizio honetako berrikuntzak ere. [Arren, arretaz irakurri.](#)

DATU OROKORRAK

- **TXANDAK:** Gure esku-orrian agertzen diren 6 txandetatik 3 hautatu behar dira (igandetik larunbaterako egonaldian). Bakarra aukeratzea baduzue, baina kontuan izan aukera gutxiago izango dituzuela. Izen ematerako garaian, plaza librerik baldin badago **PLAZAZIURTATUA** izanen dute (Arantzan 56 eta Beintzan 40 leku bete arte txandako). Hala ez bada, beste aukera bat bilatzen saiatuko gara. Azken kasuan, dirua itzuli egingo da.
- **ADINA:** Normalean 2 adin multzotan banatuko dira taldeak, 7-10 urte (2009- 2012 urteetan jaiotakoak) eta 11-14 urte (2005-2008 urteetan jaiotakoak). Oro har, lehen taldea Beintza-Labainera joan ohi da eta bigarrena Arantzara. Hala ere, txandaren arabera aldaketak egon daitezke, bai lekuaren egokitzapenean baita adin tartean ere. Edozein kasutan, elkarrekin izen ematen dutenak **EZ dira INOIZ BANANDUKO,** nahiz eta adin multzo desberdinetakoak izan.
- **ATERPETXEAK:** Udalekuak Arantzako Aterpe eta Beintzako Orbela aterpetxeetan garatuko dira. Taldeak eskaeren arabera antolatuko dira, adina eta euskararekiko harremana kontutan hartuta. Hau horrela, ezinezkoa da aterpetxea aukeratzea.
- **PREZIOA:** 260€ izena ematerakoan, epe bakarrean ordainduko da. Izen ematea egiteko ezinbestekoa da izen emate fitxa eta ordainketa egitea, biak. Ez dira onartuko ordainketa gabeko izen ematerik. Prezioan, igandetik larunbaterako ostatu eta mantenu osoa, hezitzaile zerbitzua, jarduerak eta materiala, Gasteiz eta Iruñetik garraio zerbitzua (aukeran) eta aseguruua sartzen dira.
- **MATRIKULA EGITEKO EPEA:** Martxoaren 11tik maiatzaren 12a bitarte, biak barne (edo plazarik gabe geratu arte).
- **BIGARREN EPEA:** txandak osatu ondoren, txanda horietan libre geratu diren plazak www.euskarazblaiudalekuak.com webgunean eskainiko dira, txandak bete arte.

- ONARTUEN BAIEZTAPENA: Izen emate prozesu osoa egoki egin bada (fitxa+ordainketa+ordainagiria bidali), ASTE BETEKO epean, onartuen baieztapenak posta elektronikoz komunikatuko dira eta matrikula orrian e-posta agertzen ez bada, telefonoz edo posta arruntaz egingo da. Mesedez, ziurtatu helbide elektronikoa egoki jarri duzuela. Posta elektronikoko bandeja guztiak begiratzea gomendatzen da, baita SPAM-arena ere.
- GURASOEKIN BILERA INFORMATIBOA (aukerakoa): Ekainaren 14, ostiralean, arratsaldeko 18:00etan. Elkar ezagutu eta udalekuei buruz egon daitezken zalantzak argituko dira. LEKUA: Bertiz Landa Turismo Zentroan. (Bertiz Natur Parkeko aparkalekuan dagoen eraikineko beheko solairuan) 31720 OIEREGI (Nafarroa).
- INFORMAZIO GEHIAGO. Edozein zalantzetarako, hemen gaituzue:

Web orria: www.euskarazblaiudalekuak.com

E-posta: info@euskarazblaiudalekuak.com

Telefonoak: *astelehenetik ostiralera*

Goizez, 9:30-14:00h: 948592323 (Martxoaren 11tik Maiatzaren 17rabitarte)

Arratsaldez, 17:00-20:00h : 622 728 984

MATRIKULA

- MATRIKULA: Gure web gunean egin behar duzu: <http://www.euskarazblaiudalekuak.com/matrikula-zioak-euskaraz-blai/>
- NOLA EGIN MATRIKULA
 - Udalekuetara datorren haur bakoitzak bere matrikula egin behar du webean aurkituko duzuen formularioa osatuz. Bertan, besteak beste, taldean datorren edo ez adierazi beharko du, eta hala bada, zenbat datozen eta lagunen izen-abizenak adierazi beharko ditu. Haien arteko lotura guk geuk egingo dugu. Behin formularioa egoki osatua ordainketa egin beharko da. Ez da ordainketarik gabeko formulariorik onartuko.
- ORDAINKETA: fitxa osatu eta momentuan egin beharko dira ordainketak, bestela plazarik ez da ziurtatuko.
 - LA CAIXA: IBAN ES37.2100.5382.31.0200022264 - BIC: CAIXESBBXXX
 - LABORALKUTXA: IBAN ES12.3035.0136.33.1360013945 - BIC: CLPEES2MXXX
 - NAFARROAKO RURAL KUTXA: IBAN ES90.3008.0050.39.2096012220 - BIC: BCOEESMM008

GARRANTZITSUA: Azalpenean parte hartzailearen edo HAURRAREN izena eta

abizenak agertu behar dira, ez kontuaren jabearenak. Behin ordainketa eginda info@euskarazblaiudalekuak.com bidali behar da ORDAINAGIRIA.

- ITZULPENAK:
 - Lekua lortzen ez bada, dirua itzuli egingo da.
 - Udalekuetan onartuak izan eta gero, edozein arrazoirengatik izen ematea ezeztatu nahi bada, ondorengo diru itzulpen portzentajea egingo da ondorengo datetan:
 - Maiatzaren 6 baino lehen: matrikularen %75 itzuliko da.
 - Maiatzaren 6tik ekainaren 9 arte: matrikularen %50 itzuliko da.
 - Ekainaren 9tik aurrera: matrikularen %25 itzuliko da.
- *Pisuzko arrazoa duten kasu bereziak aztertu egingo dira.
- UDALEKUEN FAKTURA: Norbaitek udalekuen faktura behar izanez gero, Udalekuen e- posta bitartez eskatu dezake info@euskarazblaiudalekuak.com helbidean. Lehenagotik eskatzea gomendatzen da, hartara astearen bukaeran jasotzeko aukera izango da.

HIRU TXANDA AUKERATU!!

Hiru txanda aukeratzea beharrezkoa da. Modu honetan, aurreko urteetan eskaeren %99 baieztatu ahal izan dugu. Gainera, taldeak modu erosoagoan antolatuko ditugu, zuen seme-alaben ezaugarrien arabera, udalekuaren emaitza nabarmen hobetuz. Beraz orduan eta txanda gehiago aukeratu probabilitate gehiago dago lekua izateko. Aukera bakarra hautatuz gero, kontuan izan plaza izateko aukerak izugarri jaisten direla.

AUTOBUS ZERBITZUA

Autobus zerbitzua hautazkoa da eta prezioan barne dago. Aurtengoan ere, autobus zerbitzua Gasteiz eta Iruñatik antolatu da. Larunbatetan, ordea, zuen seme-alabak udalekua pasa duten aterpetxean jaso beharko dituzue.

- *Igandean, irteera:*
 - 15:00 GASTEIZ (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako partaideak): Gamarrako Igerilekuan (Barratxi kalea 39-A, 01013 Gasteiz).
 - 16:15 IRUÑA (Nafarroa eta Gipuzkoako partaideak): Eroski Zentro Komertzialean (Donosti errepidea, 31013 Iruña-"Berriozar").
- *Larunbata, haurrak bila:*
 - I. 11:00-12:00 ATERPE aterpetxea (Larreta karrika 5, 31790 Arantza)
 - II. 11:00-12:00 ORBELA aterpetxea (Udaletxea, 9, 31753 Beintza-Labaien)

Txanda bukatu baino lehen, norbaitek Udalekutik alde egin beharko balu, guraso edo tutorearekin batera izan beharko luke; honen ordean, beste pertsona bat haurraren bila etorri ezker, aurretik idatziz guraso edo tutorearen baimena jaso beharko genuke.

DIETAK ETA TRATAMENDUAK. OSASUN ARRETA

- DIETA BEREZIAK, ALERGIAK: gure aterpetxeetan etxeko janaria prestatzen da, bertan eginga. Dieta bereziak prestatzen ditugu baita ere, intolerantzia arazoak edota alergiak dituzten haurren beharrak ere asetzeko. Matrikulan behar berezi hauen zehaztapen guztiak idatzi behar dira.
- BOTIKAK, MEDIKU TRATAMENDUAK: Medikua, guraso edo tutoreak agindutako botikak bakarrik emango zaizkie umeei. Horretarako hauen baimen idatzia beharrezkoa dugu. Medikuaren txostena, tratamendua eta berau emateko baimen sinatua beharrezkoa da.
- OSASUN ETA MEDIKU ARRETA: istripu edo gaixotasun kasuetan, larrialdi protokoloa jarraituko da, Lesakako (Arantzako aterpetxearen kasuan) eta Doneztebeko (Beintzako aterpetxearen kasuan) pediatria zerbitzuekin koordinatuz. Ondoren gurasoei abisatuko zaie.

BISITAK – TELEFONO DEIAK – ARGAZKIAK

- BISITAK UDALEKUETAN: Udalekuen dinamika ez mozteko, bisitak debekatuta daude.
- TELEFONO DEIAK: Ez da telefono deirik izango. Udalekuan zehar arazoren bat edo larrialdiren bat izanez gero, familia antolatzaileekin kontaktuan (622 728 984 telefonoa) jarri ahalko da eta, alderantziz, udalekuen antolatzaileak familiarekin ere. Noski, guztiz debekatua dago telefono eramangarriak ekarri eta hauen erabilera haurren aldetik.
- ARGAZKIAK: Matrikulan, argazkiak atera eta hauen erabilpen mugatutako baimena eskatzen dizuegu. Astero, ostegun eta astearte gauean, argazkien bilduma txiki bat www.euskarazblaiudalekuak.com gure web gunean jarriko dugu, gurasoek ikusi eta inprimatzeko aukera izateko, kanpaldien oroigarri polit bat edukitzeko.
- ARGAZKI KAMARA: hurrei argazki kameraren erabilpena mugatuko zaie, udalekuen dinamika ez mozteko. Era berean, antolakuntzak ez du kameraren ardura beregain hartzen.

*Euskaraz-Blai 2019
Bertiz Landa Turismo Zentrua
31720 OIEREGI (Nafarroa)*
